

Ez da gelako elefante bakarra



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
EUSKALTZALEA

Hizpidea jarri zuen Pello Salaburuk sare sozialetan, aipatuta hemendik hamabost urtera etorkinen pisua Bizkaian biderkatu egingo zela, biztanle guztien %22 izateraino, eta hori badela “zinez euskararen mehatxua”. Jakina, horrela botata, beste zehaztasunik gabe, azkar sutu ziren bazterrak (artikulu idazterako, 76.100 ikustaldi), pilatu ziren erantzunak, aldekoak (gutxi) eta aurkakoak (ugari), baita irainen batzuk ere; neronek ere heldu nion amuari. Salaburuk eta aldekoek aipatu zuten ezkerrek gai horri iskin egiten diola, baina elefantea gela barruan dagoela. Litekeena da, baina kontua da etorkinena ez dela euskararen gelan dagoen elefante bakarra.

Hasteko eta behin, eta barka jakinak diren kontuak birgogoratzeagatik, gaztelania da bizitza sozialean ezarritako hizkuntza hegemonikoa; legez eta indarrez, inposatuta. Etorkina berehala ohartzen da piperpoto elefantearekin, harrerako lurraldean balio duen eta beharrezkoa duen hizkuntza bakarra gaztelania baita (*idem* frantsesa eta trikoleturra).

Etorkina berehala
ohartzen da piperpoto
elefantearekin,
harrerako lurraldean
balio duen eta
beharrezkoa duen
hizkuntza bakarra
gaztelania baita

Edonola, askok oroitarazi genion etorkin berri ugari saiatzen dela euskara ikasten (Jaurlaritza berriko sailburu batzuk ez bezala), baina oraindik ordaindu beharrak ez duela eskuragarri egiten. Ikastetxeetan ere lan handia egiten da, baina sosa ugari behar da euskararen ezagutza eta erabilera orokortzeko. Hain zuzen ere, erabateko ofizialtasunik ez izateak, mendeko hizkuntza politikak

garatu izanak, euskara ikasteko ordaindu beharrak, hezkuntza sistemak ez euskalduntzeak edota oldarraldi judizialek eragin dute biztanleen gehiengoak bere herriko hizkuntza oraindik ez ezagutzea, eta euskarak bigarren mailako estatua izatea, 40 urte igarota ere. Talkak eta gabeziak baziren azken boladako etorkinak etorri aurretik ere, eta elefante autonomiko itxura zuten.

Esanguratsua da eztabaidan parte izan ginenok esan gabe ulertu genuela ez zela etorkin dirudenez ari. Bada, Katixa Agirre bakarrik ohartu zen kontraesan horrekin, eta alderdi hori ez da txori-kaka, etxebizitza espekulazioak, turismoak edo kultur eta ekonomia globalizazioak erabateko inpaktua dutelako hizkuntza gutxituetan (ikus “Donostian ezin badugu euskaraz bizi, non?”, EHE; “*La massificació turística és espanyolització*”, Gironako CUP; edota Eragin Linguistikokoaren Ebaluazioa). Erne, elefante kapitalistarekin tupust egin dugu eta!

Euskararen gelan elefante mordoxka dago, eta orroka ari dira. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK , OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL · 943 37 11 50 · www.atxegajauregia.com